

# HARTZ ARREA




# PIRINIOETAKO HARTZA

**RÉGINE ELOSEGI BLANC**

**IKER ÜTHÜRRALT**

**iKas**



Lo iragan du negua,  
harpe ziloan gordea.  
Tapa-tapa agertzen da,  
gaur atzarri da hartza.

Azkarra baina malestruka,  
ihauteri(e)tan jautsiko da.

Beltxaran ile trinkoa,  
haurren izialdura, oihuka.  
Tapa-tapa agertzen da,  
gaur atzarri da hartza.







## EDIRENGIA

1. Hartzaren ezagugarrien fitxa.....	6. or.
2. Hartzaren bizilekua.....	8. or.
3. Hartzaren janariak .....	10. or.
4. Hartzaren bizimoldea urtean gainti .....	12. or.
5. Hartza historian.....	14. or.
6. Ihauterietako hartza.....	18. or.
7. Mündüko beste hartz mota zonbait.....	20. or.
8. Hartza, sinbolo handia.....	21. or.

# Hartzaren ezagugarrien fitxa



**Klasea:** Ügaztünak

**Familia:** Ursidae


**Generoa:** Ursus (Hartza)

**Espeziea:** arctos



**Goratarzüna  
xütik:**

1,70 m — 2 m



**Goratarzüna soinkürütxean:**  
0,80 m — 1 m

**Pezüa**


arra: 80 kg — 300 kg

emea: 65 kg — 220 kg

**Bizi esperantxa:** 25 — 30 urte

**Kolorea:** gaztaina kolorea, beltzarana, marru ülüna

# Hartzaren ezagügarri fisikoak



Pirinioetako animalietarik handiena eta indartsüena da hartza. Korpitz gotorra dü eta bürü handia. Nahiz beharri eta begi ttipiak dütüan, ikusmen hona dü eta üsno zorrotza. Janarien eta gustüko düan eztiaren edireiteko, üsno fiaz baliatzen da.



# Hartzaren bizilekua

XX. mendearen hastapenean, hartzak Euskal Herriko bortukate güzietan bizi ziren. Bena gaur egün, Nafarroako oihan gorde eta aterpetüetan baizik ez dira bizi.

Hartza animalia bakartia da.





Hartzaren banaketa European

# Hartzaren janariak

Zer jaten ote dü?



Masüsak



Ahabiak



Ezkürrak



Hürrak




Eztia



Üinürriak



Erroak




Animalia handiak



# Hartzaren janariak

## Hartza orojalea da.

Oihaneko frütak, aziak eta lantareak jaten dütü, baita animalia handiak, arrainak eta intsektüak ere.




Bai ote zanakian?

Larrazkenean hartzak hanitx eta hanitx jaten dü erreserbüen egiteko.

# Hartzaren bizimoldea urtean gainti

## Non ote da negüan?

Negüa lo iragaiten dü. Zilo batetan lo egiten dü osto idorrez, adarrez eta belarrez eginiko etzangian.



Negüko loan direlarik, emeak erditzen dira. Hümeak oso ttipiak dira eta berehala joaiten dira amaren hurrepeko eznearen edatera.



# Hartzaren bizimoldea urtean gainti

**Bedatsean emeak hümeekin jelkitzen dira.**

Bedatsean, hartz emeak negüko loalditik iratzartzen dira eta hümeekin beren ziloetarik jelkitzen.



Hartz hümeak ezinago jostakinak dira. Laster ikasten dūe zuhaintze nadietara igaiten, oihaneko erreketan mainatzen eta janari goxoen edireiten.

Amaren ondoan, bizitzeko beharrezkoa dūen güzia ikasten dūe, gehitü arte.






# Hartza historian

## Hartza historiaitzinean



Ekaineko karbeko hartz margotüak



Botxüetako grabatüa,  
Ariège departamentüko  
"Grotte des trois frères"  
karbean



Izturitzeko karbeko hartz zizelkatüa

# Hartza historian

## Hartza Erdi Aroan

Santa Graziko elizan badira XI. menteko hartz itxürako zizelkadüarak.



Erdi Aroan hartz hanitx bazen oihanetan eta bortüetan. Hartzek eragin handia züen jentartean; herritarrak eta artzainak harritzen zütüen. Jenteek hartzak kontairetan aipatzen zütüen, baita margotzen, zizelkatzen... ere.



# Hartza historian

## Hartzaren desagertzea XIX. mendetik aurrera

Duela 200 urte, hartz hanitx bazen oihanetan eta bertan. Baina hartzak sosaren irabazteko baliatzen beitziren, eta azkarki ihiztekatzen, oihanetik desagertu dira.



Hartz ihizteka Pirinioetan, 1865ean



Hartz ihizlariak Pirinioetan, 1947an




Pirinioetako hartz erakuslea Ingalaterran



# Hartza eta jentea gaur egün...

Gaur egün, hartz elibat badira Pirinioetan. Espezie gerizatüa da. Artetan, hartz zonbait Pirinioetara ekarten dütüe beste herrialde batzüetarik.



# Ihauterietako hartza

Negüa ürrentzean hartza iratzartzen da...



Hartza Zuberoako maskaradetan



... Eüskal Herriko karriketan agertzen da, bedatsea horra dela seinalatzeko.



Lapurdiko ihauterietan






# Ihauterietako hartza

Ibiliz, joaldünek herots egiten düe hartzaren iratzartzeko eta biziaren arrapizteko...




Nafarroako ihauterietan, Iturenen eta Zubietan

*Bedatsean brokak zabaltzen dira...*  
*Bedatsean ainerak ützültzen dira...*  
*Bedatsean egünak lüzatzen dira...*  
*Bedatsean bizia arrapizten da...*



# Mündüko beste hartz mota zonbait





# Hartza, sinbolo handia

Düala 60 urte, panda  
desagertzeko arrisküan zen.



Gaur egün, klima kanbioaren  
ondorioz, hartz zurien bizileküa

**ttipitzen,**  
**ttipitzen**  
**ttipitzen**  
ari da...

**Noiz arte?**

# 21. MATTIN HARTZA



$\text{♩} = 154$

C F G Am F Dm

Ni naiz Ma-ttin har-tza gor-pu-tzez naiz gai-tza, pux-ka bat, pi-zu-a, bai-

G7 C G7 C F G C Fine Cm

nan ez gaiz-to-a. Ni naiz Ma-ttin har-tza. Gor-pu-tzez naiz gai-tza. Hun-ki-a ez-ti-a, bi-






Fm Cm Fm Cm Fm G Cm

ho-tza haun-di-a, mai-te di-tut hau-rrak, a-dix-ki-de o-nak, Gau gu-ziz o-he-an, Jo-

Fm Cm Fm Cm G7 C D.C al Fine

se-pen on-do-an, sar-da-di-en lo-tan, na-go ni be-gi-ran.

Eskerrak Migel Mari Elosegiri libürü balios honen idazteaz.



Maketazioa eta diseinua: Xabier Elizondo  
Argitalpena: Unai Zubeldia  
Argitalpen ardüradüna: Aines Dufau  
Legezko ardüradüna: Maite Erdozaintzi-Etxart

ISBN 978-2-84963-246-8 Eüskal Herrian inprimatüa 2022ko ürrietan